Zenbaki honetan

Gaur-gaurko kezka zaharra da euskararen eta euskaldunen adierazkortasunari buruzkoa. Betiereko erronka berria, hizkuntza lantzekoa; hasi plazara jalgitzetik eta noranahiko bihurtzera. Halaxe erakusten du Bitoriano Gandiagak 1977an Jakinen argitaratutako *Uda batez Madrilen* liburuko olerki honek:

> Euskarak ez du errurik,
> nik ez diot ezarriko,
> euskarak ez du errurik.
> Neu naiz errudun euskara
> indartu ez zaidalako,
> su-arma ez dudalako,
> eskutan hartu ta zirt-zart
> ez darabilkidalako
> nonahi ta zernahitarako.

Erronka hori, hala ere, lur ezegonkorrean egin izan da, biziera osoa euskaraz ematea naturala ez beste guztia baita. Normalizatu gabeko eremuetan, unibertsalizatu gabeko euskalduntze bideetan. Haize-kontra betiere.

Egoera horrek mihia, luma eta ideiak zorroztea eskatzen du, eta horretarako egin genuen ekainean, hain zuzen ere, urtero bezala Usurbilgo Udalarekin eta UEUrekin batera antolatu ohi dugun Jakin Jardunaldia, *Euskara esanindartzeko*

bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak izenburupean. Pentsatzeko, egungo Euskal Herriaren luze-zabalean eta kulturaren esparru guztietan, zein diren euskararen adierazkortasuna lantzeko erronken norabideak: nola probestu hortik eta hemendik –tradiziotik bezala ezusteko lagunarteetatik edo ahalduntze linguistiko-politikoetatik– sortutako baliabideak eta esperientziak; nola lortu hiztunak baliabide horietan trebatzeko kontzientziak piztea eta bideak eskaintzea; nola gaurkotu eredu horiek guztiak sozializatuko dizkigun erresonantzia kutxa eraginkor bat. Irantzu Pastorren azaleko irudiko oreak ere ahalegin eta egitasmo horiek iradokitzen du: izan Gandiagak aldarrikatzen duen ahalegin pertsonala, izan euskalgintzak sustatzen duen egitasmo kolektiboa.

Ildo horretatik, hiru helburu nagusiren inguruan ardaztu zen jardunaldia: euskara adierazkorra sortzeko eta gizarteratzeko gako, irizpide eta azpiegituren inguruan pentsatzea; adierazkortasuna lantzeko bideak hiztunen legitimitatearekin, hizkuntz ideologiekin eta hautu euskaltzaleekin elkarrizketan jartzea; eta iragan hurbileko esperientziak eta urratutako bideak ezagutzea, gaur egunerako norabideak pentsatzeko.

Zenbaki honek, beraz, jardunaldian parte hartu zuten Miren Amuriza, Amaia Alvarez Uria, June Fernandez, Kike Amonarriz, Iratxe Retolaza, Garazi Arrula, Gorka Bereziartua eta Danele Sarriugarteren ekarpenak dakartza, batzuen eta besteen gogoeta teorikoak eguneroko praktika eta lanketei lotutako azalpenekin konbinatuz.

Zenbakiaren atarian, Ula Iruretagoiena arkitektoa elkarrizketatu du Itziar Ugartek *Jakin filosofatzen* sailean. Amaieran, aldiz, *Egunen gurpilean* sailean, Jokin Bergararen eta Yasmine Khrisen bi lankidetzak datoz.